

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/028

Izenburua: INDUSTRIAKO LANBIDE HEZIKETAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Datak: 1951-1972

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 48 instalazio unitate

Sortzailea: INDUSTRIAKO LANBIDE HEZIKETAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Erakundearen historia:

Nafarroan, 1928ko abenduaren 21eko Errege Dekretuaren bidez argitaratutako Estatutu Profesionalak emandako eskumenak betez, Lanbide Heziketako Patronatuaren Fundazio Gutuna onartu zen, Foru Diputazioaren 1946ko abuztuaren 14ko Erabakiaren bidez. Erabaki horrek aldaketa batzuk izanen zituen Lanbide Heziketa Industria arautzen zuen 1955eko uztailaren 20ko Legearen bitartez.

Industriako Lanbide Heziketako Batzorde Nagusi, Probintziako eta Tokikoen Erregelamendu Organikoak (1956ko urtarrilaren 31ko Agindua) ezarri zuenez, Irakaskuntza Ertaineko eta Lanbide Irakaskuntzako Probintzia Patronatuekin koordinatu behar ziren batzorde horiek. Patronatu horiek 1949ko uztailaren 16ko Legearen bidez sortu ziren eta Patronatuen Araudiak arautu zituen (1949ko abenduaren 30eko Agindua). 1952ko urtarrilaren 18ko Dekretuaren bidez, irakaskuntza ertain eta profesionaleko —lan batxilergoa— ikastetxeak banatzeko eta sortzeko plana onartu zen. Plan horrek xedatzen zuen irakaskuntza ertain eta profesionaleko zentro ofizial bat sortu behar zela zenbait probintzian, eta, besteak beste, Nafarroan.

Honako hauek zeuden Nafarroan Industria Lanbide Heziketa kontzeptuaren barruan: Laneko Eskolak (Salestarrak), Uharte y Cia.-ko Industria Metalikoen Eskola, Tuterako San Jose Lan Eskola (Jesuitak) eta Bideko Ama Birjina Tailer-Eskola, guziak Ordezkaritza Sindikalaren babespean. Ezarritakoa betetzeko (1953ko abenduaren 11ko Dekretua), Hezkuntza Nazionalako Ministerioari baimena eman zitzaion Altsasun irakaskuntza ertain eta profesionaleko zentro bat sortzeko, industria eta meatzaritza modalitatean, eta agindu zen irakaskuntza ertain eta profesionaleko Probintzia Patronatu bat eratu zedila Iruñean — ikastetxea sortzeko Agindua argitaratu ondotik—, aipatutako 1949ko Araudiaren arabera. 1955eko urtarrilaren 25eko Aginduaren bidez, Altsasuko Udalak eta Probintzia Diputazioak Altsasun irakaskuntza ertain eta profesionaleko zentro ofizial bat sortzeko egindako eskaintzak onartu ziren. Udala konprometitu zen eraikina eraikitzeko lurak doan lagatzera, eta Foru Diputazioak urtean behingo dirulaguntza bat esleitu zuen aurrekontuetan.

Urte batzuk geroago, maiatzaren 8ko 746/1961 Dekretuak xedatu zuen irakaskuntza ertain eta profesionaleko Probintzia Patronatuak eta Lanbide Heziketa Industrialeko Probintzia Batzordeak bateratzea eta Lan irakaskuntzako Probintzia Batzorde bat osatzea. 1964ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez, Nafarroako eta Huescako Lanbide Irakaskuntzako Probintzia Batzordeak sortu ziren. Horrekin batera, desagertu egin ziren Lanbide Heziketa Industrialeko Probintzia Batzordeak eta irakaskuntza ertain eta profesionaleko Probintzia Patronatuak.

Martxoaren 17ko 736/1966 Dekretuaren bidez, irakaskuntza ertain eta profesionaleko eta Lanbide Heziketa Industrialeko Probintzia Erakundeak egituratu ziren, Lan irakaskuntzako Probintzia Batzordeak iraungi ziren eta irakaskuntza ertain eta profesionaleko Probintzia Patronatuak eta Lanbide Heziketa Industrialeko Probintzia Batzordeak berrezarri ziren.

Azkenik, 16/1967 Legeak —Irakaskuntza Ertaineko lehen zikloa bateratzeari buruzkoa— 1949ko uztailaren 16ko Legea indargabetu zuen eta abian jarri zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren berrantolaketa (147/1971 Dekretua, urtarrilaren 28koa). Horrek ekarri zuen

organo eta erakunde autonomo batzuk ezabatzea; besteak beste, Lanbide Heziketa Industrialeko Probintzia eta Toki Batzordeak.

Funtsaren antolamendua:

028.01 GOBERNUA

- 028.01.01 Batzordearen aktak
- 028.01.02 Batzordearen saioak

028.02 ADMINISTRAZIOA

- 028.02.01 Memoriak
- 028.02.02 Erregelamenduak
- 028.02.03 Korrespondentzia

028.03 LANGILEAK

- 028.03.01 Langile-hornitzeak
- 028.03.02 Ordainsariak

028.04 KONTABILITATEA

- 028.04.01 Aurrekontuak eta kontuak
- 028.04.02 Kontabilitate arloko dokumentuak

028.05 ONDAREA

- 028.05.01 Ondasunen inbentarioa

028.06 ZERBITZUAK

- 028.06.01 Ikastetxeen kudeaketa

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.